

Amak ordainpide

Euskaldunon Egunkaria, 1995-02-14: 2.

"Argia-n" egin berri dioten elkarrizketa batetan, Gipuzkoako Gobernadoreak egin ditu zentzua duten, baieztapen batzuk: Bergizarteratzea indarrean dagoela Estatuan oraindik, eta honek sortarazi zuen presoek sakabanaketaren politika ere bai; baina Estatuak edonon giza-eskubideak errespetatzen dituela, beraz, baita presondegietan ere. Gainera, Goierriko Legorretan jaioa den Juan Mari Jauregik ulertzen du "presoen senitartekoen zenbait kexa, euren seme-alabak ikusteko oso bidaia luzeak egin behar dituztenean batipat; presoak bisitatzeko Kanarietaraino joan beharra ez da oso atsegina izango". Nekeak aipatu ditu, badira gainera diru kostuak; nolana gurasoak kupidatzea ez da gutxi. Seme-alabak diren presoak erditzea egokitu zaion amaz, batez ere; zeren eta kalteak sortu dituzten presoak bere giza-eskubide nagusietan errespetatzen badituzte, omen!, makurkerien berririk ez duten amek merezi dute errespetu osoa; orain arte, ordea, begirune honen orde, presoentzat moldatua izan den estrategian sartzen dituzte amak ere, eta efikazia itsua erakusten duen legeak ez du kaltea egin duen semeagandik errugabea den amarik bereizten. Gobernadorea hain ongi jardun badu legeaz eta honen errespetu eta goratzearean, nola ez dio bada egokituko jokabide hau Goierri eta edonon sortu den amari?